

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

137n. Zenbakia Urterrilla

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**BERTSOLARITZA  
EUSKALERRIAREN  
BEREZITASUNA**

## BERTSOETAN

### Goazen Belenera. (Santimamiñe lez abestu leiteke.)

#### Danak:

Goazen pozez guztiok,  
goazen bai Belenera,  
gaberdian jaio dan aurra  
apaltasunez gurtzera.

#### Batzuk:

Abere-askatxo baten  
dago Ume Jaungoikoa,  
lasto-gañean etzunda  
otzez dardarka gaxoa.

Bere ondoan etzunda  
idia eta astoa,  
euren arnasez berotzen  
bertan jaio dan Aurtxoa.

Zeru-goietan begira  
oiuz aingeru-taldea;  
pozarren leialtasunez  
goratzen danen Jabea.

Bere ondoan etzunda  
idia eta astoa,  
euren arnasez berotzen  
bertan jaio dan Aurtxoa.

Inguruko artzaitxoak  
etorri dira bertara,  
opari asko eskiñiaz  
Jaungoiko Aurra gurtzera.

**Goiria**

#### Seaskakoa.

Lo dago aur txikia  
seaskatxoan,  
ama pozez zorutzen  
bere alboan.

Aingeruakin dago  
pozik izketan,  
ama patxoka ago  
ta matralletan.

#### Goiria.

Polito-polito ba  
is estaldun,  
amatxo dok emen ta  
ez ai bildurtu.

Lo dago txikitxoa  
goxo-goxoro,  
beragan dau amatxok  
baitasun oro.

Lo dago aur txikia  
seaskatxoan,  
ama pozez zorutzen  
bere alboan.

Ez ein negarrrik txiki,  
lolo maitetxu,  
amatxuk zainduko-ta  
lolo enetxu.

Ointxo biak goraka  
ta jolasetan,  
irripartxoa muxu  
ta españetan.

Egik lolo txikitxu  
lolo maitia,  
bestela laster dok or  
toto andia.

Bilbo, 1930.

Neure barneko puxka  
neure aingeru,  
ire amatxorentzat  
poz eta zeru.

#### Maitasun - billa. Goiria.

Maitasun-billa biotz-atean  
nabaitu zaitut an barrenean  
gau egunez an bakarrean;  
eta zoro onek zabaldu bank  
bialdu zaitut ate-aurretik  
indarrez neure kaltean.

billatzen zaitu txit damututa,  
maitekor artu egizu.

guztia jat eriotza;  
Zu bank ezin bizi naiteke  
t'eskale erara maitasun-eske  
jatortzu nire biotza

Lur-pozkeriari besarkatuta  
ibilli izan naz Zugaz aztuta  
lokatz zikin biurtuta;  
zorunik ez daun lokatz-bidean  
maiteketei utz-loien atzean  
ibilli naz itsututa.

Erdu barrero, erdu maitea,  
jo barriz nire biotz-atea  
noz joko dozun zai dago;  
kabi beroan ama-zai gosez  
txoriak egon oi diran legez  
noz joko dozun zai nago.

Lur-pozkeriak Zu bank, Jauna,  
ez da besterik samintasuna;  
oiñaze-neke mingotza;  
zatozkit bada, biotz-atera  
zure basarkaz berotutera  
otz dagon nire biotza.

Gaur baiña, Jauna, eskale bat lez  
gogoa beta zure atera  
maitasun-eske jatortzu;  
zure dei on ezin aztuta

Biotz gaxoa itun-samiñez  
eta gogoa negar ta miñez  
alaka nozu atean;  
zabaldu, Jauna, zure barrua  
ta biztu eizu niregan sua  
biotzaren barrenean.

Gaurtik aurrera —ziñez diñotzut-  
nire Jaun bakar Zu izango zaitut  
nire biotz-barrenean;  
izan ba Zu be nire ezti-gaiatz,  
nire laguntza eta argia  
bizitz-ontako bidean.

Bilbo, 1931

## URTE BARRIRA ITXAROPENEZ

Sartu gara barriro be barria dogun 1990 urte onetara. Zenbaki biribilla dauan urte onetara, beti lez itxaropentsu sartzen gara eta gure itxaropenak mundu zabalera begiratzen dau, baita, biotzaren barru-barrutik eta maitasunezko begirakadaz, gure Euskalerrri onetara.

### MUNDUAN

Munduko bazter batzutan itxaropenerako argi-izpiak agertu dira edo agertzea nai genduke.

**Afrika'n** baltzak eta zuriak alkarragaz burrukan ikusten doguz, batez be egoaldean. Urte barri onetan euren arteko bakea sortzea da gure guraria: Guztiak bardintasunean eta anai-giroan eratu dagiela erri bizi bakar bat.

**Txina'ko** erritarrak adoretu ikusi doguz askatasun-bidera sartu-naian, baiña negarra izan da ondorena. Ba-dago orregaitiño, barriro be eskariak egin eta giro barri batera sartzeko asmoa ta guraria. Bear ba'da ori eskatzeko urtebeteko epea laburregia izango da.

**Libano** erri martirizatua eta guda-giroan bizi eziñik dagoana. Izango ete dau urte onetan bakerako biderik? Ez dago itxaropen larregirik. Urtea arin joango da eta bakea urrin geratu.

**Txile** n, ostera itxaropenerako zio geiago agiri dira eta idazten gagozen une onetan barri onak datorkuz: Agintaritza gogorra alboratu eta erri-agintaritza sortuko ete dan. An be lengo agintaria geratzen da "militarren" buru eta pozaren ondoan ardurea ta arriskua ikusten dira.

**Europa** n aspaldion itxaropentsu bizi da jentea naizta Inghaterrako Andra Agintaria larregi alkartzearen bildur izan. Or mundu barri bat dago sortzen eta urte onetan aurrerapen aundia izango dau.

**Errusia'n** eta inguruetan pozik aundiena agertzen da. Erria txirotasunera eroan dauan bi-

dea alboratua izango ete dan, baiña itxaropen on be ez da bildur-bakoa. Gorbatxob'ek laguntza emoten ez ba'dautsoe agintaritza itziko ete leuken esan dau. Ondatuko ete da urte onetan prestroika esaten dautsoen jokabide itxaropentsu ori?

### EUSKALERRIAN

Munduko giroa, naizta larritasunak izan, itxaropentsu sartzen da urte barri onetara. Eta gurea? Euskalerrikoa?

Burutza-erabagia da aspaldiko itxaropena. Sortaldeko Alemania'k daukan antzera gure erriak be izango ete dauan bere burujabetza osoa nai dauen ala ez agertzenko erarik. Baiña onetan ez dago itxaropen larregirik. Ez dabe emongo eskubide ori eta emongo ba'lebe zer agertuko litzake gure errian, ainbeste kanpotar eta ainbeste euskaldun kanpozale daukaguzan une onetan?

Izukeria amaitzea nai genduke, igaz egin dira arazo ori alkar-izketaz konpontzeko alegiñak, baiña ondorena, txarra izan da. Orain Itxaropenik? Ez geiegirik.

Naparroako bide barria dogu azkenengo auzia. Gauza ederra litzake Naparroa ta Gipuzkoa bide barri baten bidez egokiro alkartzea, baiña egindako eginbide orreri aurka jarri jakoz batzuk. Bide ori zelan edo alan egingo dala uste dogu.

Eta euskerea? Euskereak aurrera egingo dau artu dan bide baragarri onetatik, baiña sendi ta erri-giroan atzera. Eta azkenean zer? Ikusi egin bear. Il ez da egingo, aldatu asko bai, eta bizirik geratzekotan gauza tristea litzake Uvi edo labo-rategietan geratzea edo errian euskera oso aldrebestu bat sortzea.

Amaitzeko, munduko arazoak bideratzeko itxaropen geiego eta alegin geiago ikusten dogu Euskalerrikoak bideratzeko baiño.



# JASAN-EZINA

Oraintsu Iraillan, 133 garren zenbakian, **izadiko eusteari** buruz egindako idaz lanean Leizaran zear, Irurzun eta Andoain bitartean egin gura daben beribil-bidea gaia erabili genduan an sortutako gora-beera batzuk aitatzuz. Nork uste izango eban andik laster ainbeste eztabaida ta matraka ekarriko leukezanik? Egundoko borroka ta aurkako eritzipen sortu dira beribil-bide au dala ta ezjala.

Agintariak eskua sartu bear izan dabe eta alegindu gauzak zuzendu ta beren lekuan jartzeko.

Alderdi erkal-zale edo demokratiko guztietako ordezkariak alkartu ziran Gipuzkoa'ko aldun-etxean. Bosteunen bat izan ziran an bildu ziranak, biltzarkide, aldun eta ziñegotziak alkarren artean. Eurekin lendakaria be an egon zan.

Egoera zearo aztertu ondoren, bereala danok batera etorri ziran: erakunde edo instituzioak artu dabezan asmo ta erabagiak onartu ta beribil-bidearen egitama aurrera eroan, ETA'k jarritako eragozpen eta aitzakiai jaromonik egin barik.

Arrezkero be agintarien alkarren arteko batzarrak eta agerpenak ugari izan dira. Beti ao batez, HB izan ezik, ETA'k agertu dauzan asmoai, argi ta garbi, ezezkoa emon dautsie.

Izan be, ETA'k beribil-bidean lan egingo daben arduradun eta langilleen aurka egin dauzan zema ankerak, jasan eziñezkoak dira. Zergaitik ainbeste korapillo, oztopo eta bildur-arazi bearra agintari eta erakunde guztiak, HB ez besteak, onartu daben egitamauari?

Egia da izadiari ez jakola gaitz egin bear, eta bere ingurugiroa zaintzeko kalte egingo leuskioen oztopo guztioz baztertzen alegindu bear dogula. Onen arabera danok dagoz ados, naiz beribil-bidearen aide naiz aurka dagozanak. Bai orixe! Nun dago ba untzea?

Duela amarren bat urte asi ziran lenengo neurketak or-emenka joka ibiliaz. Ordutik ona amaika zirriborro ta aldakuntza erabili dira beribil-bidea egiteko izango leikiezan aukera guztiak Aztertuz. Ainbeste arduraz eta zeatz-meatz gertutako egitama, teknika-bidez eta bear bezela eginda aurkeztu ezkerro, onartu edo beste bat obeago eskeiñi zentzuzko izango litzake, baiña ez setaz aintzat ez artu, zarraparrak eta zarata egiñaz, beti zemaika.

Len aipatutako idaz lanean, esan genduan Jaungoikoa'k izadia gizonarentzat egin ebal ta ez gizona izadirako. Beraz, gizona da jaun ta jabe eta tankeraz ituindu

leike izadia, onura atara ta aldi berean alik ondoen zaindu ta eutsi, bazter guztiak ondatu barik. Onezaz gaiñera nik esango neuke, ondatu bearrean, gizonen eskua ta indarraz lur-aldietan egon leitekezan bazter itxusi ta soillak sarritan orlegi, politik eta onuragarriak biurtzen dirala, gura izan ezkerro, lana bear bezela ta borondate onaz egiten ba'da.

Naparroa eta Gipuzkoa'ko etorkizunari begira, ekonomia aldetik, zalantza barik amaika bider aipatutako beribil-bidea bear-bearrezkoa da. Lurralde bi arteko saleroketari buruz, dagozan artu-emonak oso garrantzizkoak dira. Juan zan 1987'garren urtean kopurua 169.000 milloi laurleko izan zan guztiz, naizta gaurkoan ibilbideak egokiak izan bear diran beste ez izan. Egokiratuko ba'lira, garraio edo transportea ugarituko litzake, azkenengo bazterreño erosotasun eta onura eroanaz.

Zertzelada oneik, Donosti'ko Merkataritza Etxeak egindako txosten batetik artuta dagoz. Txosten berean egundoko goramen eta txaloak egiten jakoz beribil-bideari ta onek errepidietako azpiestruktuari ekarriko leuskion aurrerapenari. Au ezinbeztekoa ei-da Irurzun eta Andoain bitartean dagon lurraldeari gora eragiteko ta beste ekonomizko agertaldiak aukera-onean sortu daitezkan. Ekonomiak be ba-daukoz bererizko arauak eta oneik egokitu bear izaten dira.

Beraz, joera ez bardin biren aurreran aurkitzen gara. Batzuk, itxura beintzat, ekologizale aldekoak edo ingurugiroaren zaintzaille bezela agertzen diranak eta besteak, ekonomiari jarraituz, lurraldeko aberastasunari gorakada aundi bat eman gura dautsoenak, an dagozan erriai onura eta etekinbideak banatuz.

Eztabaida eta borroka asko eta gero, dirudinez, ille-bete biko-edo bake-une aldi bat artu dabe. Bitartean or dabil Beribil-bidearen Aurkako Koordinatzaillak deritxon Batzordea egiñalak egiten bere eritxiak, naita nai ez, ezarri bearrean.

Epea beteko da ta uste dogu, bidezko dan ezkerro, Batzar nagusiak eta enparauko erakundeak artuko dabezan erabagiak ontzat artu, ta beribil-bidearen lanak beingoan asiko dirala. Baiña baita bear-bearreko da izadiari dagokion begirune zaintzea ta inguruari lotsa agertzea. Ez da dana zikindu bear; zikindu bearrean edertu baño.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

## ONDARROAKO ABADeari Eskerrak

Badira ille batzuk Emiliano eta Andoni apaiz jaunak zar-bidetu edo jubilatuta zirala, baita be Agustín Jauna (G.B) Jaunaren Etxera joan zala, eta urte bete baiño geiago, Jesus apaiz jauna, Zornotza'ra bialdu ebela, bere abade lana bertan betetzeko.

Lenengoz: nik, neure aldetik, idazki onen bidez, neure omenalditxoak esker berota maitagarrienak nai dautsedaz agertu, batez be, kristautasun bidez ondarrutarron aide egin daben lan sakon eta zuzenagaitik.

Bigarrenez: neuri eta neuri lez, gazte askori, kristiñau eta euzkera-zale zintzoak izaten lagundu dauskuelako.

Abade oneik, ondarrura etorri ziranean orain dala ogeitabat edo bi urte artan, egoera gogorra eta benetan latza aurkitu eben. Pedro Arakama jauna (G.B.), eta Imanol Orueamezaga'ren arteko estabaidak zirala ta, ondarrutarrok, Elizara ez joateko arrera artu genduan.

Ondarroa'ra etorri ziran abadeak, Eleizea, uts utsik aurkitu eben, iñor ez zan Eleizara joaten baten batzuk izan ezik. Iñolako laguntasun barik aurkitu ziran, oso egoera latza benetan, bai.

Baiña urteak joan eta urteak etorri, abade onen lan zuzenari esker, jentea bere neurritz, asi zan barriro Eleizara joaten eta baita be laguntasunak emoten.

Olan ba, garai bateko diru laguntzaren ukamenetik, EUSKADI'n geiengotako diru laguntza emotea pasatu da Ondarru, eta au da, ondarrutarren biotz zabalagaitik eta abade onen lanagaitik.

Ondarroako Eleiz-Ikastola be, gure apaiz onek sortu eben, eta gure umeak kristiñau ta euzkaldun zintzo lez asi eta ezi dira.

Itxas-Eskolak be, nai ta aurretik sortuta egon, abade onen lanari esker, aurrera iraun dau.

Ondarroako Andra Mari Eleiza, baita Anti-

gua'ko eta Santa Klara'ko eleizak be, oso osorik barrituak izan dira. Oneik eta beste lan asko egin dabe gure abade maiteok, baiña garrantzi andia daukana da, etorri ziranean, Eleiza, uts utsik aurkitu ebela, eta orain euroi esker, beterik eta ondarrutar geienok kristatasun bide zuzen baten sartuta gagozala.

Egun baltzak be, ugari jaso izan dabez gure abadeak, garai bateko "Kristo Rey" taldeak (eliztarrak zirala esaten ebenak) abade-etxera joan eta negar-garrizko paliza gogorra emon eutseenean, Emiliano eta Jesus jaunai, baita be meatxuak be ugari aide batetik eta bestetik jaso izan dabez.

Imanol Orueamazaga eta bere inguruko jende aldetik be, ostopo gogorak euki izan dabez, batetik boikotak, bestetik eleiz barruan sartzeak, ta elizkizunak tokitik aldatu bearrak, abar eta abar.

Ostopo gogor eta ugariak bai, baiña, danak gaindituz, abade oneik, euren lanari esker, aurrera urten dabe kistautasunez danori lagunduaz. Eskerrak ba, biotz-biotzez.

Idazti onetan ez dot nai izentatu eta eskertu barik iztea ondarruko lekaiume edo mojak, AdoraciOn, Belen, Isabel, Beatriz eta abar, abadeari eta ondarrutarroi asko lagundu dauskuelako. Eskerrak ba zueri be.

Amaitzeko, ongi etorri bero bat nai dautset emon gure abade barri oni, Joxe Mari eta Agustín Jaunai.

Badakit gogorra izango zala euren eliztarrak laga ta beste leku barri batera aldatu-bearra, baiña guk ondarrutarrok, uste dot, ondo artu doguzan lez, apaiz barri onein etorreran eurok be gureganatuko dirala lenbailen, gure aldetik eukiko dabelako bear dan laguntza guztia. Ongi etorriak ba, eta aurrera danok batera.

SOLABARRIETA'TAR JOSU

## III.-ELEIZEAREN ELBURUA

### GOIRIA

Bai ete dau Eleizak elbururik? Izan ete eban Jesukristok elbururik Eleiza sortzean? Jesukristok ezin eikean sortu bere Eleiza elbururik izan ezpa'eban. Ze elburu izan eban ba Jesukristok Eleiza sortzean? Gizonak salbatu Eleizaren bidez. Gizonai egizko erlijioa irakatsi, gizonak zeruko bidetik zuzendu, graziaren bidez santutu.

Elburu bi izan ebazan Jesukristok munduratzean: pekatuak galdu ebazan gizonak jaso ta Erospenaren ondoreak eta irabaziak danai ezarri.

Bigarren au da izan be Eleizaren elburu lena, au da, iragarritako egiak gizonai ezagutu-erazi, sakramentuak banandu, aginduak, bete-erazi ta abanjelioa iragarri ta zabaldu mundu osoan.

Erljiño-betetzak santutasuna sortu-arazten dau ta beraz Eleizaren elburua be gizonak zeruko bidetik zuzentzea da Jainkoarekin betiro zoriotsu bizi daitez. Eleizaren elburua Jainkoari aintza ta gurtza emotea da. Eleizaren zeregiña Jesukristoren lana jarraitzea da. Eleiza Jesukristo Bera da mendez-mende ber izenean gizonai irakasten, sakramentuak banatzen, gizonak graziaren bidez santutzen.

Jesukristok munduan darrai Eleizaren bidez gizonak salbatzen.

Jaungoiko Aita bero Semea bialdu eban mundura gizonai salbamen-egiak irakatsi egioezan. Jesukristok almen osoa dau Aitak bialdua dalako. Almen osoa irakasteko, zuzentzeko ta legeak jartzeko ta bete-erazteko. Aitak bialdutako Jesukristo danen Salbatzeile ta Erosle da. Eleiza bere ordezkari da Berak aukeratua, Berak bialdua bere jarraile. Eleizak Kristoren izenean irakasten dau, bere izenean zuzendu, ber izenean agindu. Eleizak gizonen artean bananduten dauazan grazia ta sakramentuak Kristoren izenean eta bere aginduz bananduten dauz.

\* \* \*

Eleizaren elburua ez da munduko beste gauza ta gaien-tartekoa. Eleizaren elburua goi-maillakoa da, grazi-maillakoa. Eleiza bera be goi-maillakoa da, grazi-maillakoa. Eleizak goitiko bideak daukoz gizonak goi-elburura zuzendu ta eroateko.

Au olan-da Eleiza munduko beste guztien ganetik dago, goi-maillako da. Bardin bere elburua.

Ona Kristoren esan batzuk: "Nire Aitak bialdu nauan lez bialtzen zaituet Nik zuok. Almen osoa emon jat zeru-lurrean. Zoaze ba, ta erri guztiai irakatsi egiezue." Zoaze lurbira oso barna ta izaki guztiei Barri Ona irakatsi egiezue."

Argi dago ba Eleizaren elburua zein dan: Jaungoikoa ezagutu-erazi, goretsi ta gurtu, Mundu osoan Ebenjioa iragarri ta gizonak zeru-bidetik zuzendu ta eroan betiko zoriona lortu dagien.

Eleizak oso-osoa bete dau gizaldiz-gizaldiz Jesukristok ezarri eutsan elburua. Erospenaren ondorenak eta irabaziak gizon guztiai ezartzea izan zan Jesukristoren elburua Eleiza sortzean eta Eleiza beti alegindu izan da ta gaur be zoli-zoli diardu orretan, batez be mixiolariak bialduz mundu zabalera.

Adanen pekatuak galdu eban mundua jaso eban Kristok Berak Gurutzeko Eriotzagaz eta gaur be gizonai irakasten, sakramentuak banatzen eta aginduak bete-erazten diardu Eleizaren bidez.

Jesukristo Grazia bera, santutasuna bera da ta Eleizak Kristoren almena, ardurapena, ta jakituria agertzen dauz bere irakatsiagaz, graziagaz eta santutasunagaz.

Eleiza len esan danez, Jesukristo Bera da; Jesukristo Bera bere Gizakundea gizonen artean luzatzen. Jesukristok bere lana darrai Eleizaren bitartez. Eleiza Jesukristo da irakasten, santutzen, zuzentzen. Eleizaren arloa, zeregiña Jesukristoren lana jarraitzea da.

Jesukristo erri guztiai irakastea, sakramentuak banatzea, kristau legea iragartzea, agindu eutsen apostolui au ezarriz: "Neu neoke zuekaz. "Beraz Jesukristo Bera egongo da Eleizari laguntzen.

\* \* \*

Bete-bear bi sortu-erazten dauz onek: apostoluen eta euren ondorengoan aldetik erlijioa sinistu, sakramentuak artu ta kristau legea bete.

Bear-bearrekoa da ba eleizakoa izatea zerua lortzeko, irasi-sortu eban Jainko-Semeak agintzen daualako bakarrik ez, be-reak izanda bakarrik lortu aikegulako betiko bizitza Jainkoak Berak erabagi dauanez.

Ondoren au egin dazakegu onein gogoan: Jaungoikoak Jesukristo bere Semea bialtzen dau mundura zeruko egia ta bizitza gizonen artean banatzeko. Aita bialdua dalako almen guztia dau irakasteko, santutu-erazteko ta zuzentzeko gizon guztiai buruz.

Aitak bialdutako Jesukristo mundu guztiaren Salbatzaille ta Erosle da, beraz gizadi guztia berea da, bere menpean dago.

Eleiza Jesukristoren ordezkari da, Berak bialdua, ber jarrailea.

Eleiza Jesukristoren abotsa lez da; Eleizak Kristoren izenean irakasten dau, zuzendu, itz-egin eta erabagiak artu. Eleizak banatzen dauazan grazi ta sakramentuen bitartez gizonak Kristogaz bat egiten dauz, Kristoren bizitza damotse zeruko erreña jadetsi dagien.

Auxe da ba Eleizaren lana, auxe Eleizaren elburua.

## MEZA-LIBURUA

Benetan liburu ederra, oindiño aldi andirik ez dala, mezatarako irakurgaiakaz, gure elizetan zabaldu izan dauskuena.

Bear-bearrekoa genduan izan bere eta azal eta mamíñez egokia ta ederra dogun idazti bikain au. Eskerrak, ba, lan eder onen itzulpena burutu ta egokiro atondu daben elizgizon euskeltzaleeri, eliztarreri ta euskereari egin izan dautsen mesedearren.

Leen bere ba-genduzan mezatarako irakurgaiak, zatika, arrapaladan-edo atonduak baiña ez euken euskera ain jatorra: esakera ta itz batzuk irakurleak berak zuzendu bearrekoak eukezan, eliztarrak obeto ulertu egiezan.

\* \* \*

Leengoak, Salmoak, Iratzeder beneditar olerkari Urtzi-koiak itzulitakoetatik Akesolo'tar Liño karmeldar idazle jakintsuak bertso neurtuz bikaierara egoki aldatuak eukuzan eta liburu barriak, itzez-itz aldatzearren, aurki, negurri bagako bertsoz dakaz eta ezin abestu daitekez. Abestu ezean Salmoak ez dauke, ba, gatzik, nire ustez.

Au lako lan luzeak akatz barik itzultea ezta izan bere bear erreza eta liburu onek bere ba-ditu euskal-entzumen zoliaren jabe daitenak errez igarri leikeozanak eta ain zolia ez daukanak igarri leikeozanak bere bai.

\* \* \*

**Zu** ta **Zeu** izen-ordeak, oraingo idazlerik geien-geienak lez ez dakaz ondo: Euskal-sen zolia bear izen-ordeok nun ezarri jakiteko. Baiña, tira; enaz asiko txikikeriak azaltzen.

Esakera batzuk bere ez dakaz egoki: "Ejito'tik neuk zaitut atara" eta abar, Ejitotik **neuk atera** zaitut edo, **Neuk atera zaitut** Ejito tik idatzi bearrean.

Eta, iñoz bere iñun entzun ez irakurri izan ez dodazan atzekoz-aurrerakada bitxiak dakaz idazti mardul onek: "Zeugan dogu-ta gure uste ona" "...uste ez dozuen orduan etorriko yatsue-ta Gizonaren Semea" "...arrigarriak egin ditu-ta gizasemeen aide" Aundia da-ta Jaunaren errukia, "Zeugan dogu-ta gure uste ona" eta abar eta abar.

Zer dala-ta idatzi ete-dabez, gure abadeok, iñun esaten ez direan atzekoz-aurrerakada orreik? Leengo ta oraingo ainbat irakurgai irakurri izan dodaz, euskalki guztietatik, neure bizian, eta iñoz bere ez dot irakurri izan olako esakera biurrik. Ez-ta entzun bere, ango ta emengo euskeldunen artean sarri ibilli izan nazarren.

Iñoz ez da esan izan, ba, "etorrida-ta etxera", "joango da-ta elizaza" ez "biztuko da-ta erria", ta on beti-beti azkeanean baiño.

Esataldi batzuetan ondo dakar baiña beste batzuetan ez; itzulpen orretan jardun izan dabenetatik baten bat izango zan, aurki, bitxikeri orreik idatzi dituana...

Ba-dakit itzultzailleok euskaldun jator eta zintzoak direana eta ezin asmau dot zer dala-ta egin izan daben laban-kada baztergarri ori.

Atzekoz-aurrerakada orreiek bultzatu nabe eretxi au idazten, barrikeri itxusi orreik neure euskal-sena zauritu dauste-ta; ostantzean ez dot uste egin izango nebanik. Ez aurki!

\* \* \*

Leenago, **baita-be** euskera-gaiztozko lorrinkeria zabaldu euskuen euskal-sen bagako barrikeri-zaleen batzuk eta orain beste esakera taiubako oneik agertu yakuz. Ez daitela edatu, ba, arren, euskearen onarren, barrikeri itxusi baizen nabarmen ori, leen here euskera-gaiztoa ugari dabil benetako euskerea lorrinduten alegiñak-alegin egiten or zear-da.

\* \* \*

Eta, zer dala-ta **ere** geure **bere** edo **be** idatzi bearrean? Ba-dakit esakera batzuetan beste bere-az nastetan dana irakurkeran ondo oguzi ezik; baia olakoetarako or dogu **be**. **Bere** ta **be**, bata aide batzuetan eta bestea beste aide batzuetan, bietara erabilten da bizkaieran. Ez daigun iñausi, ba, arren, geure berbakerea eta beste euskalkiekaz nastau, besteak be eurenetan gure itzik sartzeko oiturarik, arean-bere, ez dauke-ta.

Eta, "Ezin zaree izan Jainkoaren eta diruaren morreoi" eta abar, ezin **zaithekeze** esan bearrik, eta abar. Erderakada ganorabako, aditz-erabilkera ziztrin orreik direala-ta enoa ezer esaten, gaurkoz, leen bere baten baiño sarriago erabilitako autua dogu-ta.

Liburu orren atontzaille zareen adizkideok, ez txartxat artu dagitzuedan eretxi-agerpen au, euskerearen onarren egin izan dot, eta.

AURRE-APRAIZ'EK

## BERTSOLARITZA

MUNIATEGI'tar ABEL

### AURKIBIDEA

- 1) MUGAKETA
- 2) GAIAK
- 3) ARAUAK
- 4) KONDAIRA
- 5) GAUR
- 6) BERTSO-PAPELAK
- 7) BIBLIOGRAFIA

### 1. MUGAKETA

Agozko euskal literaturak iru zati berezi ditu:

- Atsotitzak edo esaera zaarrak.
- Kobla ta erri-abesti zaarrak.
- Bertsolaritza.

Bat bakarra da iru zation sustraia, baiña, gaur egun, azalez beintzat, bakoitza bere ezberdintasunean azaltzen jaku.

Gure egunotan bertsolaritza da agozko euskal literatura-zen azalpenik argien eta indartsuena. Orregaitik lantxo onetan bertsolaritza, soilik, eta laburtzen aleginduaz, mintzatuko gara.

### 2. GAIAK (Mamia)

Bertsolaria erri-maillako gizona da ta erabilten dituen gaiak errikoiak dira, au da, ingurutik artuak, eguneroko bizitzak emonak. Baiña bertsolari bakoitzaren adimen-egitura zelako gaiaren tratamendua alakoa. Onez gain, izango dira gai batzuek zenbait bertsolarik erabiltzen dituenak eta beste zenbait ez. Gaiak aukeratu ta tratatzerakoan ba-dau zer-ikusia bertsolari bakoitzaren sensibildadeak.

Bertsolariak erri bateko semeak dira, baiña ez dira inguru bakar batean bizi. Orduan, izango dira zenbait gertaera ta zirkunstantzi bertsolari batzuentzat kantu-gai izan daitekezenak, baina beste batzuentzat ez, ain derrigorrez.

Dana dala, bertsolaria bere denborako gizona da ta sasoiari sasoiko gaiak kantatu izan ditu geien bat. Edozelan be, iñoiz jazo izan da gai atzeratuak edo garaiz-kanpokoak erabiltzea. Azken urteotan gaurkotasunez jantzitako gaiak dira erabilten diranak.

Beti izan dira kantu-gai Jaungoikoa, Erlejiñoa, Eriotza, Maitasuna, Izadia, Kirolak, t.a. baiña, besteak beste, gaur non ta noiz nai erabilten dira mundu material onetako zenbait problema ta buruauste konkretu be. Ara zelan, gizarte ta politika auzi ta arazoak: askatasuna, espetxeak, grebak, t.a.

Bertsolariak asitako gaien jarraitzen jakin bear dau, a galduta barik ta, batez be, bertsoaren barruan, motibo aundien bat ez bada, gaia aldatu barik.

### 3. ARAUAK (Azala)

Bertsolariak itzetik ortzera kantatzen dau, inprobisatu egiten dau, ez ditu bere bertsoak etxean ikasita eroaten. Bertsolariak sarri, ia beti, binaka kantatzen dabe. Beraz, bestearen bertsoa entzun, norbere erantzuna asmatu ta bear bezala josi ta orraztu, bertso legeen arabera, segundo batzuetan egin bearrekoak dira. Bertsolariak bertsoan asi arte ez dau jakiten zer ta zelan kantatu. Txapelketatan, mikrofonoaren aurrean jakiten dau norekin, zeri ta ze doinutan kantatu, ta bertsoan ari dala joaten da zer eta zelan abestu pentsatzen.

Baina, naiz eta bertsolari batzuen atsegingarri izan ez, mundu au konplikatu egin delako ta zenbait gai bertsoz ez ezik hitz lauz erabiltzea be zaila dalako, komeni da bertso jaialdietan, ez txapelketetan, bertsolariai gaiak esatea kantatzen asi baiño zerbait leenago, esate baterako, bost minutu leenago. Jokabide onekin, inprobisatzeak ez leuke galduko, bertsolariak lasaia kantatuko leuke, bertso abeak moldatuko leuke ta entzuleak bertso bikainagoak entzun eta gus-torago egonaz zerbaitekin enteratuko litzakez.

Bertsoa inprobisatu egiten da, ba, baiña inprobisatze onek bertsolariak kontuan izan bear dituan arauak, legeak, ditu bertsoak:

a) neurria

Bertsolaritzan neurri asko dira, baiña ezagunenak, erabilienak, eta beste neurri-mota batzuen ardatz diranez gero, bi, bakarrik, agertuko ditugu:

— zortziko nagusia

Zortziko nagusiak zortzi lerro ditu.

Leenengoak, irugarrenak, bostgarrenak eta zazpigarrenak, hots, bakoitiak, inparak, bakoitzak amar silaba edo hitz atal ditu.

Bigarrenak, laugarrenak, seigarrenak eta zortzigarrenak, ots, batoiak, parrak, bakoitzak zortzi.

Zortziko nagusiari bi lerro erantsita neurri bereko ama-reko nagusia egiten da.

Ona emen, 1966-ko Urria-n Durango-n egin zen Bizkai-ko Txapelketan kantatutako bi zortziko nagusi:

Naiz ta gaztetan / aurkitu izan  
sutsu eta buru-bero,  
mundu ontako / arro-bideaz  
zertarako jarri ero?  
San Inaziok / bere bizitzan  
ez al zion egunero  
alperrikuak / dirala danak  
arima galdu ezkerro?

(Arregi)

Erantzuna:

San Inazio / militarra zan  
eta arretaz aditu:  
Gugatik eta / errian aide



ez zuan ezer sufritu  
Bera zala ta / bera ez zala  
erdera gailen gelditu...  
Obe genduan / Ejertzivak  
euskeraz egin balitu.

(Muniategi)

— zortziko txikia

Zortziko txikiak, nagusiak lez, zortzi lerro ditu. Inparrak, bakoitiak, bakoitzak zazpi silaba ditue ta parrak, batoiak, bakoitzak sei.

Zortziko txikiari bi lerro erantsita neurri bereko amareko txikia egiten da. Bederatzi puntukoaren sustraian be zortziko txikia dago. Bederatzi puntuan gaur ez da kantatzen. Leen, baietz dirudi.

Zortziko txikia gai alai eta azkarretan arabiltzen da, batez be. Adibidez: KOÑATA...

Etxeko gazteana  
artu nun emazte,  
koñata neska zarra  
aizpa andre gazte,  
orrek ematen dio  
naiko buru-auste,  
gutxiago zanikan  
ez bai-zuen uste.

Autsak kentzen asteen  
kuartutik kuartura,  
iñor molestatzia  
ez dio ardura,  
eskoba dantzatzan du  
edozein modura,  
sorgiñaez baldin bada  
Jesu, ser da ura!

(Lopategi)

b) Amai bardina (rima)

Bertsolaritzan ez da ezagutzen rima asonanterik. Amai berdintza on beti da konsonantea. Gitxienez, azken-silaba rimatu bearra dago. Sarritan azkeneko silabak biak rimatzen dira, baiña legerik egokiena azken-silaba ta aurreko bokala rimatzea da. Rimatzen dauan lerroari "puntua" deritxo ta parra, batoia, izaten da.

Itz bakar batekin rima bi edo geiago egitea galazita dago ta "poto" deritxo.

Adigarritzak ikusi emen jarri ditugun zortziko nagusi ta txikiak.

Neurria ta amai bardina dira bertso-legeetan garrintzitsuenak, printzipalenak, baiña, naiz eta ainbeste inportantzi ez izan, bada beste arau bat kontuan artzekoa:

d) Etena

Ez jako kasu asko egiten baiña bertsoan afinatzerakoan ez da zertan aitzu.

Lerro bakoitzaren bukaeran, amaieran, bear da etena.

Ez da zilegi itz bakar bat bi zati egiñez, zati batekin lerro

bat bukatu ta beste zatiarekin urrengo lerroa astea. Bahia emen aipatu nai duguna erdiko etena da, lerroaren erdiko. Eten au neurriaren gozotasunak eskatzen dau. Esakunaren zentzuak daragian lerroaren erdiko geldi-une txiki bat da.

Zortziko txikian ez da erabilten, zortziko nagusian bai ta lerro bakoitzaren bosgarren silaban egiten da: 5/5.

Ikus jarri ditugun zortziko nagusiak.

Etenak esaera arteztu egiten dau, bertso-sentiduaren lagungarri da. Onekin ez dot esan nai etenarekin naiko danik. Etenaz gain, bertsolariak esaeraren jatorrasuna ta argitasuna kontuan izan bear ditu. Esatea ez da naikoa, ondo esaten jakin bear da. Neurri, amai bardin eta etenak alako ritmo bat dakarte ta, bertsoa kantatu egiten danez gero, kantuak, ritmo on aundiagotu egiten dau.

e) Doiñua

Ba-dau bere inportantzia. Kantatzen diranak erri-doinuak dira.

Ez da berdin hertso bat doiñu baten edo bestean kantatzea. Ba-leiteke doiñu hctekin luzituagoa izatea beste batekin baiño.

Donosti-n egin zen Euskal Erriko azken Txapelketan (1967) ogei ta bost doiñu ezbardin erabili ziran.

## 4. KONDAIRA

Badakigu Erdi-Aroan bertsolari sonatuek izan zirela, bai gizonetakoak eta bai emakumetakoak, baiña gure tartera leen bertsolari aundi lez datorkiguna au da:

Pernando Amezketarra

Fernando Bengoetxea Altuna 1974-an jaio zen eta 1823-an il Amezketa-n, bizi ta entzutetsu egin zen errian bertan.

Garai aretako bertsolariak ditugu Zabala amezketarra, Txabalategi, Ametza, Altamari, Otobezino, t.a. Bahia Pernando gailen. Iztueta da leenbizi Pernando-ren barria emoten dauskuna bere "Guipuzcoaco Dantzac" liburuan. 1799-an Azpeiti-n gertatua adierazten dausku

Lagunak arturikan,

guzizko tirrian,...

Iztueta-k dakar baita be, 1801-ean Billabona-n jokatu zan bertso-apustua. Alde batetik Zabala amezketarra ta bestetik Txabalategi ernaniarra. Pernando, Aizarnazabal-ko elizaia ta D. Jose Mendizabal Tolosa-ko apezka izan ziren juez.

Ordu bian ekin eben bertsolariak eta hara Pernando-ren erabakia:

Ezin gentzake bada  
beste gauzik egin,  
nik gogoan naukana  
zuk dezu itzegin.  
Utzi bear ditugu  
biak berdin-berdin  
Gipuzkoa guziak  
ar dezan atsegin.

Pernando-k ondo zekien zer zan bertsolaritza. Bertsolari

---

# EUSKAL-ASTEIA

---

aundi izatez gain, bertso-juez be onartua zan.

Pernando-ren ateraldi ta txistek bertsolari zalako ziran, bere bertsolaritasunaren ondorenak ziran. Pernando batez be bertsolaria zan.

Bere bederatzi puntuko bat:

Manifestuan dago  
gauza agiriya,  
ez dala aberastuko  
bertsolariya,  
kantuz ez dala erosten  
arto ta gariya,  
ez eta dendan ere  
soñeko berriya;  
nik badet premiya  
artzeko neurriya,  
diruz naiz urriya,  
orra esan egiya;  
au da nere festa ta  
erromeriya.

## Etxahun

Pierre Topet Etxahun 1786-an jaio zen Barkoxe-n (Zuberoa-n) eta 1862-an hil. Barkoxe-ko iltegian dago bere ilobia "Ahaide Delezius Huntan"-ko azken-bertso onekin:

Khantore hoiek kuntii niitin Unhiirritzeko olhetan,  
Errumarat juiten nizala erraiten beitiit hoietan;  
Maleruski ni hil banendi bidaje lazgarri hortan,  
Ziberuan khanta-itazie, ene orhitzapenetan.

Etxahun-ek bizitza latza ta garratza igaro eban; erromes eta giltzapean emon eban bere denbora. Nekazari aberatsen seme zan, baina ez zan etxean onartua izan. Nahiz eta ezkondu; ez zen emaztearekin konpondu.

Mugaz andiko bertsolarien buru izan zan. Bere bertsoak agotik agora iraun dabe nekazari ta artzaietan. Bertsolari ez ezik, gure literaturako poetarik gorenetakoa be ba-dogu.

Jean Haritschelhar euskaltzainak aztertu ta argitaratu ditu Etxahun-en bertsoak: "L'oeuvre poetique de Pierre Topet-Etxahun".

Jon Etxaide-k gipuzkeraz jarri zituen Etxahun-en lanak: "Etxahun-en bertsoak gipuzkeraz".

Maixua da ziri-bertso ta elejietan. Euskalerriko Villon eta Verlaine-tzat artua izan da.

Bere garaikoak ditugu Bordele luzaidetarra, Otxalde bidarraitarra ta mugaz emendik Izuela (Izuela-ko Artzaia) aiarra.

## Xenpelar

Juan Francisco Petrirena Rekondo "Xenpelar" Errenderi'n jaio zen 1835-ean eta 1869-an il. Naiz eta ain gazterik il (34 urte) Xenpelar-k izen aundia itzi dau. Bertsolarien maixu autortua da. Bertso tinkodun bertsolaria da Xenpelar. Oso aberatsa bai neurritz eta bai doiñuz.

Sarri argitaratuak izan dira Xenpelar-en bertsoak: "Mutil zarraren bizitza", "Andre gaxuen penak", "Andre txarren bentajak", "Betroi bati", "Azken juizioko eguna", "Konfesien gainian", "Jesukristo-ren Pasiva", "San Jose-ren zazpi Dolo-

reak", "Santa Barbara-ren Martiriva", "Balentin Berriotxoari", t.a.

Bertso jartzeari gogor ekin eutson. Zeiñek ez dau iñoiz entzun: "Bertso berriak Xenpelar-ek jarriak?"

Ziri-bertsoetan oso azkarra zan. Nork ez ditu ezagun, esaterako, "Aizak i mutil Mañontzi" ta "Iparragirre abilla dela"?

Ona bat bateko bederatzi puntuko bat zortzi bertsolariren izenak sartuaz:

Panderia-ko onek  
memoria erne;  
Lexoti-k jartzen digu  
zerbait umore;  
txarrik ezin bota du  
Ibarre-k naitare;  
nik oiekin ezin det  
luzitu batere;  
Xorrola dotore;  
baita Bordondo're;  
Ardotx paregabe;  
Arotxa kantore...  
Larraburu jartzen det  
gobernadore.

Bertso onetan aurkitzen dira Xenpelar-en denborako zenbait bertsolari on.

## Udarregi

Juan Jose Alkain Iruretagoiena "Udarregi" Aia-n jaio zan 1829-an eta Usurbil-en bizi ta it 1895-ean. Ospe aundia itzi eban.

Biotz samur eta iaio agertzen jaku bere bertsoetan. Badaki garratz kantatzen be. Xenpelar baino sei urte leenago jaio zan, baiña ogei ta sei urte geroago il eta orregatik jarri dogu Xenpelar-en ondoren.

Bederatzi puntuko bertsoetan nagusi da Udarregi. Erdal itzak erabiltzen zituan bere bertsoetan, baina grazi aundiz eta euskal nortasunez jantzita.

Ez ekian irakurten eta idazten. Bertsolari geienak izan dira onetan motel. Baina Azpeiti-ko Premio sonatua (1893) bide zalarik sortu ebari beretzat alfabeto berezi bat. Bertsoa asmatu-ala ganbarako orman teilla-zati bategar arrastoa egiten eban, ormako arrastook makillara aldatu ta makillarekin Usurbil-ko organista zen Joxe Txiki-rengana joaten zan.

Udarregi-k kantatu, Joxe Txiki-k idatzi ta gero irarkolara. Ona orduko bertso bat Pello Errota-ren kontra:

Alkatiak jarria  
zan kondiziva  
laguneru eiteko  
partiziva.  
Eman bear danian  
txarra soziva;  
botata kunplitzen da  
obligaziva.  
Orren aziva

dala traiziva.  
A ze leziva;  
konparaziva:  
Judas-ek izan zuan  
ofeziva.

Migel Anton, Pello Errota-ren semeak erantzuna:

Nere aitai jartzen diozu  
ez duela lotsik;  
sekula ez dizu egin  
bear ez dan gauzik.  
Premiva eman zioten,  
arek artu pozik.  
Zu gauza ez ziñala ta  
gelditua utsik.  
Ezin bete poltsik;  
Ez bukatzen saltsik.  
Gizonaren antzik  
Ez daukazu kasik;  
orrelakuak ez du  
merezi galtzik.

Donosti-ko Udaletxean Udarregi-k:

Kontzejura etorri naiz  
paper baten billa,  
pentsatzen jarri ta ere  
au dek alper pilla  
Pluma eta tintero,  
hastoi ta makilla,  
pobriak altxatzeko  
a ze kuadrilla

Bere denborako bertsolariak: Gazteluko Gorri, Pello Errota, 7\_ubizarreta, Estrada, 0110ki, Errekaldetarrak, Xenpelar, Uztarri, Iparraguirre, t.a.

### **Pello Errota**

Pedro Jose Elizegi, "Pello Errota", Astiasu-n jaio zen 1840-an eta 1919-an il bere jaiotetxean. Azkarra ta zorrotza, ziri-sartzaile ona. Plazan luzitzen ekian bertsolaria. Errotaria zen. Ameriketara eroan eban bertsoak kantatzera joan dan mendearen azken--aldean.

Udarregi-k dio:

Pello degu juez,  
lonbratua legez.

Txirrita-ren eritxia: "Pello bezelako bertsolaririk ez da izan bein gabeko amabiak jo ezker".

Tolosa-ko feria egun batean, Txirrita balkoan eta Pello balkoipetik pasuan joiala, Txirrita-k kantatua:

Arrazoi batzuk bota bear ditut

balkoi ontatik kalera;  
gizo on gaur ikusi eta  
artutzen detan kolera.  
Astiasu-tik inguratuta  
erronkak jotzen ai zera;  
etorritako bidetik jungo aiz  
ni bajatzen banauk bera

Pello-ren erantzuna:

Balkoi orretan ez da arrazoirik  
eta ain gutxi pertsonik;  
dotore samar asi aiz baiña  
ez dek egingo gauz onik.  
Oraindik inork ez zidak esan  
erronkaria naizenik;  
balkoi ortatik ez dek bajauko  
ni bialtzeko gizonik.

Bere denborako bertsolariak:

Emen juntatu gera  
gaur sei bertsolari:  
Errekalde zarra ta  
Juan Jose Udarregi  
Azkoiti-ko Kortazar,  
Gaztelu-ko Gorri,  
Errenderia-kua  
Xenpelar jaun ori,  
ni, berriz, seigarrena  
Pello Errotari.

Pello Errota-k itzi eban bere seme-alabengan bertso-ku-tsua. Bertsolari sendi baten aita izan zan.

Txirrita

Jose Manuel Lujanbio Retegi 1860-an Ernani-n jaio zen eta Altza-n it 1936-an. Bertsolari ugaria, samurra, irudimen argi-koa. Bertsolari doaiz bete-betea. Gudu aurreko azken bertsolari aundia. Bertsolaritza eban benetako langintza ta lanari lotua it zan Goizueta-ko plazan bere burua gaizki sentitu ta egun gitxira.

Aurtzarotik asi zan bertsoan:

Milla zortzireun irurogei ta  
amalau urte urrian,  
lenengo plazan kantatu nuen  
nik Ernani-ko lurrian,  
San Antonio deitzen diogun  
ermita baten aurrian,  
lagunak alkar estimatuaz  
lengo oitura zarrian.  
Orduko ango bertsolariak  
lau lagun giñan guziak

# EUSKAL-ASTEA

Ernani-n bertan bataiatuak,  
barrio ontan aziak,  
Jose Migel ta Erramun illak,  
ni ta Juan Mari biziak,  
San Antonio-k merezi du ta  
eman zaizkagun graziak.

Txirrita-k bere bertsolari bizitza luzean bertso-era danak  
landu zituan. Ez bakarrik irri-bertsoak, serioak be bai, gizarte  
ta aberri-bertsoak asko ditu. Esaterako:

Il da Canovas, Juan da Canovas,  
pikaro gaizki ezia;  
galdu zituen ipar garbiak  
jarri du trumoi nasia,  
galdu zituen Fueruak eta  
Jaungoikoaren grazia;  
galdu zituen bere lagunak,  
galdu du bere bizia.

Mutil zaar porrokatua zan:

Ogei eta bi urtetarako  
nintzan ezkondu nayian,  
irurogei ta bederatzitan  
oraindik nago gayian;  
lendabiziko nere pregoia  
botatzen duten jayian,  
suzko zezenak izango dira  
Zurriola-n ta Kayian.

Bertsolarien Txapelkun gelditu zen 1936-ko Urtarrilaren  
19-an Victoria Eugenia-n egin zan Txapelketan. Orduetik bost  
illabete baiño leenago il zan, Ekainaren 3-an, Altza-ko Gazte-  
luene-n, 76 urte zituala.

Gazte-gazterik asi nintzan ta  
oraindaño bitartian,  
zenbait umore eder jarri det  
Kantabria-ko partian;  
pixka batean ez naiz aztuko  
sartuagatik lurpian;  
nere aipamenak izango dira  
beste larogei urtian.

Bere garaiko bertsolariak: Gaztelu, Saiburu, Frantzes-Txi-  
kia, Telleri-Txiki, Olegario, Regino, Fermin Imaz, Aizarna,  
t.a. eta Bizkaia-n:

## Enbeita

Pedro Enbeita Renteria, "Enbeita zaarra", "Urretxindorra"  
1878-an jaio zan Muxika-ko Areatza-n eta bertan il zan 1942-  
an. Kepa Enbeita bere denborako bertsolaria zan. Bere ingu-  
ruan zer gertatzen zan ikusi ta ausnartuaz erriari maxuki adie-  
razten jakin eban. Bertso-eskola berezi bat sortu ta bertsolari  
sendi baten belaun egin zen. Ba-dau meritua. Bere bertsorik

geienak aberkoiak dira. Enbeita-ren lanak aurkitzea ez da  
erreza. Baina ez uste bere bertsoetan politika gaiari soilik lo-  
tzen danik. Baditu "Bei zarrari" jarritako aapaldiak; jarrialdi  
onetan garbi ikusten dira Enbeita-ren bertsolari abildade ta  
iaiotasuna.

Ara Aizarna-ri botatako bertso bat:

Zenbat pertsona dauzan  
ainbeste jeniño,  
Aizarna-n errazoia  
aundiyok, orraiño;  
semientzat nobiya  
bear daula diño:  
urte bete ta erdi  
ez ei dauz ondiño,  
sopak obe leukezak  
nobixiya baiño.

Bizkai-ko bertsolarien izar da Kepa Enbeita.

Garai aretako bertsolariak Bizkaia-n: Uriarte, Eulia,  
Arrola, Txindurri, Berritxu-ko Ezkerra, t.a.

## Basarri ta Uztapide

Gudu ondoko bertsolaritzari Basarri-k eta Uztapide-k eutsi  
dautse batez be. Alkarrekin urteetan ibillik erriz-erri ta plaza-  
rik-plaza. Basarri (Ignacio Eizmendi) 1913-an jaio zan Errezil-  
en eta Uztapide (Manuel (Olaizola) 1909-an Arrua-n.

1935-eko Urtarrilaren 20-an Donostiko Kursaal-en egin  
zan Bertsolari-Txapelketan Basarri izan zan garaile. Eta  
urrengo urteko Urtarrilaren 19-an Victoria Eugenia-n egin za-  
nean Uztapide bigarren. Geroztik, Euskalerrri guztian, ezagun  
dira. Biak goi-maillako bertsolariak, bertsoaren teknika ta iz-  
kutuek zeatz ezagutzen dituenak.

Euskalerrriko azkenengo iru Txapelketatan (1962, 65, 67)  
Uztapide izan da Txapelkun. Uztapide da guk ezagutu dogun  
bertsolaririk osoen eta aundierna. Basarri ta Uztapide-ren ber-  
tsolaritza epaitzeko ez dago euren liburueta jotea besterik.

Basarri-k: "Bertso sorta", "Kantari nator", "Atano III-ren  
Edestia bertsotan" eta, gainera, Auspoa-n argiteratuak.

Uztapide-k: "Lengo Egunak gogoan" (bi tomo) eta Aus-  
poa-n argitaratuak. Uztapide-ren liburuak ba-dau alako aber-  
astasan bat Etnologi ta Sozioloji aldetatik be.

Bikote onen sasoikoak ziren Zepai, Kortatxo ta, naiz eta  
zerbait zaarragoa, baita Txapel be.

Basarri-ren agurra 1935-eko Bertsolari-Txapelketan:

Uso zuri bat inguratu zait  
goizean egun argitzez,  
alaitasuna artxek sortu dit,  
jaun maiteak, bere itzez;  
eta ni orain zuen aurrean  
nazute pozaren pozez.  
Lendabiziko entzule onak,  
Agur danori biotzez!

Uztapide-k Zubeltzu itziartar bertsolari zaarraren omenal-  
dian kantatua. Emen agiri da Uztapide-ren eskola:

Jose Antonio nere laguna,  
ia gogoratzen zazun:  
ni Olaberrin morroi nengoen,  
zu bizi ziñan Zubeltzun;  
zuk sorotikan bertsua bota,  
nik bestetikan erantzun,  
nik dakizkiten ederren oeik  
zuri ikasi nizkizun!

### 5. GAUR

Basarri ta Uztapide oraindik gaurko bertsolari dira, baina badute istoria be; orregatik sartu ditugu KONDAIRA-n.

Guda zibilaren ondoren sortutako bertsolariak ditugu gaurkoak. Or dira: Mitxelena, Lizaso ta Lasarte, esaterako. Oneik mugaz emendik, eta Xalbador eta Mattin andik.

Gure egunotako beste bertsolari guztiak Txapelketeri esker erneak direla esan diteke. Txapelketak jarri daben giroa izan da bertsolaritzaren suspertzaile.

Gaur sekula baiño bertsolari obeak eta aundiagoak doguzala esango neuke. Gaur bertsolari asko, onak eta ikasiak doguz. Besteak beste, Lopategi, Azpillaga, Lazkao-Txiki, Gorrotxategi, Lazkano, Agirre, Garmendia, Mugartegi, Arregi, Arozamena, Egileor, t.a. Zerrenda onetan ezin aitzu geinke Xabier Amuritzza Bizkaitarra.

Sendo ta jori daukagu bertsolaritza. Jakin dau bertsolaritzak nekazari ta artzaintza ingurutik gaurko industri-gizartera salto egiten eta erroak botaz finkatzen.

Geroari begira zer? Ba dira itxaropentsu izateko motiboak. Ba-datoz bertsori gazteak. Naiz eta gaur bertan bertsolari egiñak izan, ona biar eta etzira begira: Igarzabal, Larrañaga, Narbaitza, Jon Enbeita, Mañukorta, Intxaurreaga. Areitio, Zeberio, Lizaso, semea. Murua Attola, Telleria, Peñagarikano, Mendizabal, Euskitze, Egaña ta abar.

Edozelan be, bearrezkoa da txapelketak moldatzen jarraitzea.

Donosti'n egin zan 67'ko ekainillaren 6'koan 83 bertsolarik parte artu eben eta 68-2-4'an egin zan sariketa aundian 16 ber-

tsolarik abestu eben eta azkenengo sariketa Gernika'n asi zan 85'eko urrillaren 27'an, Anoeta'ko belodromoan jarraitu eban 86-3-23'an, 91 bertsolari kideko zirala eta 130 doiñutan abestuz eta aurten Donostian 89'ko abenduaren 17'an jarraituko dabe.

### 6. BERTSO PAPERAK

Pernando Amezketarra-ren garaian asten da bertsos-papela zabaltzen eta 1936-ra arte, au da, Txirrita-ren eriotza ta gudu zibilerako arteko denboraldi guztian, edadura arri-garria ezagutun eban. Nun nai saltzen dira "Berso berriak... jarriak". Eun urte luze oneitako bertsolari guztiak, batez be famatuak, ugari jartzen ditue bertsos-papelak.

Baiña ain itzetik ortzerako, ain inprobisatzaile, ez ziren bertsolariak be jartzen zituen bertsos-paperak erruz. Ara batzuk: Bilintx, Manuel Antonio Imaz, Iturzaeta, Zubizarreta, Estrada, Pello Mari Otaño, Zabaleta anaiak, Zapirain anaiak, Mendaro Txirristaka, "Lexo", Albizu, Aierbe, Esnal, Isaspi, Mendizabal, t.a. Gaiak danetik dira. Bertsos-papelak gure erriaren benetako komunika-bide ziran eta baita eguneroko bizitzak eragindako egizko gizarte-poesi be.

Gaur ez da bertsos-papelik leengo indarrez ezagutzen, motelago ageri da bertsoketa au. Baiña, ba-dira bertsosjartzaile onak: Matxain, Olea, Salaberria, "Ibai-Ertz", Mujika, Albizu, t.a.

Gaur kasetak eta diskoak ditugu zabal.

### 7. BIBLIOGRAFIA

- Euskalerrriaren Yakintza: Azkue (lau tomo), Espasa-Cal pen.
- Literatura oral euskērica: Lecuona, Auñamendi-n.
- Gure Bertsolariak: Onaindia, Karmel-en.
- Bosquejo de Historia del Bersolarismo: Zavala, Auñamendi.
- Auspoa Liburutegia.
- Lengo egunak, gogoan: Uztapide (bi tomo), Auspoa-n.
- Gordean neuzkanak: Lasarte, Auspoa-n.
- Odolaren mintzoa: Xalbador, Auspoa-n.

## AZKENENGO ALBISTEA

1989'ko abenduaren 17'an egin zan Donostia'ko Belodromoan Bertsolarien X txapelketa eta oneik izan ziran irabazleak:

TXAPELDUN: Jon Lonpategi (Bizkaitarra)

BIGARREN: Sebastian Lizaso

IRUGARREN: Xabier Euskitze

LAUGARREN: Andoni Egaña

BOSTGARREN: Jon Enbeita

SEIGARREN: Mikel Mendizabal

ZAZPIGARREN: Imanol Lazkano

ZORTZIGARREN: Iñaki Murua

Gizon ona, jakituna, artesa ta irakasteko, balio ebana marrazkiko, abezbatzan zuzendaria izateko, argazkillerako be bai, edozein gauzatarako, errian danak deituten eutsoen edozer gauzatarako. jakiñik eran-tzungo ebala MODURIK onenean.

Neure askenengo amabost urteetan Bilbo 'n, bi euki dodaz.

Lenengoa gogortxua baiña arteza. Orduan ikastee-txea joan zan TXOPAN edo ESKU-alde.

Umeak, gurasoak eta Maisuak be oso pozik joaten giñan lanera, ni beintzat abestuten ta beste batzuk be bai.

Bakoitzak bere zeregiña beteten eban, gogoz, modu onena, alai be bai, bear apur bat geiago egiten zan, baiña irabazi be geiago.

Au jubilatatu zan eta beste bat etorri.

Gizako ederra, ona baiño obea, gibel aundikoa, be-rarekin guztiok ondo konpontzen giñan gure arrema-netan, baiña AKATS bata eukan: Ez zan ausartzen aolku bat emoten. Larregi ona.

Bere orduan sartzen zan bere gelan, ta geiago ez zan arduratzen ezertxo be. Orduan zer jazoten zan? Olako ALKARTE baten dane tarikoak izaten dira.

Geienak ondo, ziur beteten ebezan euren ARDU-REA ta lana, baiña beste batzuk EZ. Orduan agertu zi-ran zalapartak, zirriborroak sarrera ta irteera txarrak, ta abar.

Irteeretan ala-ta-be, jentea joaten zara etxera OIUKA, basatiak bezela.

Dana zan zalaparta, zarata, azkenean okaztuta beintzat batzuk ezin sartu norbera zerbait zuzentzen, ostantzean joan bear zan mutil geienen aurka.

Orrela gauzak, eldu zan eguna JUBILATZEKO a zan poza ainbeste zirriborro ez ikustegaitik.

Leengo Irakasleekin sarritan aurkituten naz, ta di-ñauste, orain arazoa txartoagoa dagola, ordu onean ur-ten nintzala.

Orrela esango neuke, argi ta garbi, gauza ONIK ezin leikela egin.

### GURASOEN ELKARTEA ESKOLAN.

Beti egon da Eskola Nazionaletan ESKOLAKO BATZARRA, ta mai-burua izaten zan Alkatea, txan-burua edo Erretorea, gurasoen ordezeko aita ta ama bat, osagillea be baita maisua.

Baiña ogei urte onetatik ona ondiño be ORDEZKO geiago eukazan, ta bertan sartzen ziran gurasoak asko, geienetan jente jakingabela. Orduan etorri zan sarritan naasteborrazte izugarria.

Ala-ta-be Zuzendaria bazan aiurri aulekoa batzarre-tan esaten zana gura eben bete.

Zenbat ta ez jakiñago izan, gero ta geiago agindu gura eben; zelan edo alan euren MUZTURRAK sartu nonbaiten. Olako batzarretan aurkitu naiz baten baiño geiagotan, eta barre egiteko gogoia etorten yakun azke-nerako.

Neure txiki sasoian entzunda daukat esaera au:

Ez JAKIÑA, OSO AUSARTUA DALA ta egia da.

Ez dagola jente ausartuarik, ez jakiña baiño.

Au onela dala, zenbat gitxiago jakin, ainbat eta geiago agindu gura eben jente arek.

Pentsa daigun, nik zer esango neuskion APAIZ ba-teri zelan esan behar dauan MEZEA; edo osagille ba-teri, zelako osakia emon bear dautson gaixo bateri ... ta abar.

Zertan sartu bear dau olako gizon edo andra batek IKASTARO edo clase barruan?

Nire Bilbo 'ko lenengo Zuzendariakin ez zan olako-rik jazoten.

Egoan Elkarte bat bai, baiña itzagarria, oso ona, eu-ren gaietan sartzen ziran bakarrik, besterik EZ.

Olako jente URENEKIN, poza izaten zan, batza-rerra joatea.

Baiña azkenengo lau urtetan dardaraka joaten giñan zer entzungo ete zan.

Umeak nai ta zentzunezkoak izan dana ipinten eben euren aldera, naturala dan lez.

### ONDORIOKOA

Iñoiz topoko banintz bide baten, España 'ko Minis-tari Frakuntzakoa gaz, ago betean esango neuskio:

Ministrari Jauna:

MAISUEN BURUKO ASMOAK TA EUREN BIOTZA EZ BA'DOZUZ.

BERRIZTUTEN, ez dozu ezertxo egingo ERA-KUNTZAN.

Beste batzuk EZITEKO norberak egon bear dau ezita.

Onek ez dauko ITXULPENIK.

Kanpai otsak izango dira, baiña nonjoten daben, ez dau inok jakingo.

Eztabaida onen buruz asko dago idatzita, ta geiago idatzi leike, amaitu gabe.

Lege berriztu barrian, EZ DAITELA BETE, GO-RAGÓ IDATZI DOTENA, ORI izango litzake BEZU-ZARIK onena laterrikako.

Bilbon 'n, 1.989 garreneko Abustuaren 10an.

ETXEBERRI'tar ISIDOR

# IRAKASPENEN-BARRITZTATZEA

Aspalditxoan nabil irakurten eguneroko ta aldizkari baten orain dagon IRAKASPIDEREN ARAUA barriztu edo aldatu egin bear dala laterri guztian.

Eta orretako ASMOAN dagozela España'ko talde edo partidu guztiak. Aldakizun guztiak ONERAKO izan daitezela eta ondo etorriak, ta orretan ibilliko dira orren pentzakeran dabiltzazan JAKITUN guztiak.

Baiña nik esango neuke, barriztatze guztiak ALPERRIK izango dirala, gauza bat aldatzen ez ba dabe.: IRAKASLE EDO MAISUA, aldatu bear dala lehengo.

Zer diñoe nik irakurri dodazan orri guztiak: IZKI oietan emoten dautsoe garrantzi izugarria geiago jakiteari, titulu aundiagoari, ta abar, ta ez dabe esaten IZKI bat ere, MAISUAREN GIZATASUNA ta ZENTZUTASUNA OBETUTEARI buruz.

Ori egin bear leukie Maisuen era guztietan.

Alan ez bada dan-dana, ALPERRIK.

## ESKOLAKO EGILLEAK

Gure eskoletako egilleak bi dira: UMEA eta MAISUA.

Jaun aundi orreik bata baiña bestea dira garrantzi-tsuagoak, baiña nagusiena: MAISUA.

Nik diñot: España'ko Nazionaleko Maisuaren pentzakera edo OLDOZKERA aldatzen ez ba'dabe, DANA ALPERRIK. Berrogeitamar urtean egon naz irakasle bezela, Amar urtean ikasteetxe Pribatuan edo Errelijiosoetan eta beste berrogei Nazionaletan.

Batetik bestera ALDE izugarria dago Maisuen Pentsakeran.

Maisuek euki bear dauz ZEÑAZKO edo BANAZKO batzuk ta zeñazko orrek ez daukez Eskola Publikoan, Maisurik geienak, olako antzik be ez.

Erakustera doaz, beste langintza edo bizibide batera lez. Ezelako gertakizun barik, iru urtean ikasi daben argitasunagaz zerbait dakiela ta aurrera, baiña euren AIURRIA edo Izakera ezertxo ere konpondu edo ONDU barik.

Abadetzarako ainbeste urte egiten dabe, ta lekaie-txerako be bai, osagilletzarako bardin. Maisutzarako titulu bat daukiela eta ez dakie umeai buruz kalean ikusi ta ikasi dabena baiño.

Illearen azkenean etorri daitela SARI ederra, zenbat ta obea, obeto, ta besterik ez; urtearen asieran geituten ez ba'dabe, orduan GREBA, kalean zear oiuka, zalapartaka, Ministrariaren aurka... bai ERAKUSTE ederra.

## MAISU BATEN ZEINTASUNAK.

Maisuak abade batek lez, zeñazko batzuk, euki bear leukez, ta zeñazko orreik ez eukitean, ez dau balio Maisutzarako. Lenengo birtute edo onbidea izan

bear dau: DEITUA izan daitela edo ZALETASUN aundia izan dagiala orretarako.

Irakasleak bere lanera POZAREN-POZEZ, joan bear dau Jainkoaren laguntza batera doalata.

Egunero umeen aurrean agertu bear dau arpegi alaiaz, pozezkoaz AIURRI URENAGAZ.

Bigarren onbidea: EROAPEN aundikoa edo izugarria, beste modu baten esanda: ERAMAN aundia.

Era askotako mutillak eukiko dauz eta danari ondo erantzuteko norberak izan bear dau NEURRIDUN aundia, berbetan, asalpenetan, oarrak egiten ta bere kiñu oroetan; bere ONETIK urtetan ba'du sarritan, ENTRABALO bat bezela, ez dau ezer egingo bere inguruan.

Laterako esaera batek diño: Suaviter et fortiter.

Beti eztitsu ezin lei izan ta beti gogor be ez.

Noiz zer egin bear dan, ori jakin bear dau Maisu batek, Badakigu osagille batek zer egiten dauan OSASUNA onduteko, EBAGI nai ta min egin.

Onen antzera izan bear dau Maisu batek Lenengo ezagutu ondo, ikasleen.

Izakera ta asmoak, ta orduan jakingo dau, noiz gogor egin edo noiz eztitsu izan.

Irugarren ONBIDE bat: Maisuak: BIR-MAISU edo Osteratzallea izan bear dau.

Sarritan Maisua zerbait argitzen edo azalduten, asten danean mutillak egon leitekez, ziur egongo dira, beste mundu baten, orain ala-ta-be, aurreko gabean egon ba'dira, OESTEKO pelikularen bat ikusten; Orduan zer egin gure Jaun aundiak: Esan ta esan, bein ta barriz. Noizbaiten euren LOZORROTIK irtengo dabe entzuleak.

Ondo izango litzake Maisuak MUSIKA apur bat jakitea, ta egun bakoitzean, ikastaroa amaitzean, minitu batzuk, kantuan egitea.

Nire azkenengo urteetan on egin dot ta gure mutitxoak joaten ziran euren etxeetara pozik, alai, umore onean, eguñeko goibelak aztuta.

## ZUZENDARI ON BAT

Jent tza dagon tokian derriorrezkoa da batek AGINDUTEA, eta besteak aren ESANA beste.

Olan ez bada egiten, talde edo MORROZKA on irrun-arrunean edo naasmemean sartuko da.

Olako aldi baten gauza onik ezin lei egin, an ez dago FRUITU onik ta aurrerapenik be ez, morrozka on txarrera doa, baso baten lez.

Ikastetxe bat zuzen eroateko bear bearrezkoa da ZUZENDARI on bat topatzea.

Maisutzan asi nintzan I.932'garren urtean eta aldi on-on bat izan neban ZUZENDARI BIKAIN bat euki nebalako.

# GAZTEDIA USTELTZEN.

Azkenengo denbora oneetan ikusi dogun lez, agintariak baimendu egin dabe aur-austea. Batez be urte biotan, agintariak zabalkunde andia egin dabe, gaztei, begiragarrigalluak erabilteko bideak Zabalduz.

Aur-austea lakesteko emon dabezan arrazoiak, dandanak burugintzearen arrazoiak dira. Inork ez daki, edo zail-zailla da ziurtuteko, ia datorren semea elbarritua izango dan ala ez. Gaurko medikuntza ain da aurreratua ze, ia inoiz ez dago amarentzako arriskurik. Edo arriskua ba dago aur-austea ez da bidea. Beste zio bat aur-austea baimenduteko eskiñi gura izan dauskue: gurasoen diru-larria. Ta emen argiro ikusi geinke burugintza utsa da arrazoi-en-arrazoi.

Aur-austea erailtea da. Aur-austezaleak Akinoko Tomas Doneak oneri buruz inoana ekarri dauskue. Ba Santu jakintsu onek, gaurko jakituria ezagututen ez eban ezkerro, uste eban leenengo illabeteetan amaren sabelean giza-bizitza ez egoala. Gura dabeanean Tomas Donea maisutzat artuten dabe.

Beraz, aur-austea erailtea da nai ta eraildakoa txiki-txikia izan, Lejeune biologo ospetsuak esan dauan lez.

Ba gaur edonun SENDI-ERATZE-ETXEAK edo "Centros de Planificacion Familiar" daukoguz. Eusko Jaurlaritzak, nai Aldundiak, nai Udalak antolatua. Izena kaltegabekoa izan arren, egitez, toki oneetan ez dabe emoten sendia planifikatuteko kontseillurik, sorpenaurkakoak baño. Emakume aurdun bat ara joaten danean aur-austea aolkatuten dabe. Orretarako bearrezko jakingarriak, ta bein edo bein, bearrezko dirua be, emoten dabez.

Alderdi politiko danak onartuten dabe aur-austea ez zigortzea. Azkenengo auteskundeak baño len, eskumatarren liderra dan Aznar'ek argiro esan euskun aur-austearen aurka dagoala. Baña kontzientzi-auzia dan ezkerro, berak ez eban kenduko aur-austeari bi-

dea emoten dautson legea. Parkatu egistala Aznar jaunak: erailketa bat ez da kontzientzi-auzi uts bat.

Sidaren zabalkundeari oztopoak ipinteko aitzakiaz, orma guztiei erantsi dautzez irragarriak. Iragarri oneek gazteei begiragalluak gomendatzen dautsez. Euskera zakarrak (euskera eta da on?) diño: "Pre-serbatu".

Andramiñak antxiña antxiñatik dira. Gomazko begiragalluak bere bai. Gure gaztarotik gomuta dogu ia mutil andrati guztiak, bein edo bein, edozelako andramiña arrapatu ebela. Dana dala, orrelako begiragalluak ez ziran gauza miña eragozteko. Gero antibiotikoak motelduko ebezan orrelako eriak. Eta orain gatz barriak sortu dira.

Iragarri-ipinketa andi orren antolatzalleak ezetarako ez dala gauza jakin bear dabe. Nere ustez, ta ez naz bildur uts egiteko, jakin badakie. Zertarako orren gastu andia? Ez, agiri dan lez, gazteen osasuna jagoteko, lizunkeriarentz eragiteko baizik.

Auxe ta orixe egiten dabez gure agintariak! Bide onetatik ez gara elduko bideburu onera.


Bitartean euskaldunak aldia galduten dogu beste arlo batzuei begiratzeko. Eztabaidetan gabiltz eta bananduten dogu geure buraun ia zer komeni jakon gure Erriari: askatasun osoa, autonomi-araudia ala foruak. Baña dana baño len, alderdikeri guztia itzita, gure erria zetaz egingo dogun gogoratu bear dogu. Bere semeak erailten dabezan gizon-emakume buruzaleakaz ta lizunkeriari erantsitako gazteakaz ezelako erririk ez dogu osotuko. Sekulan be ez! Eziña!

Nire ustez Euskalerrriak daukon auzia auxe da: agintariak gure gaztedia usteltzen ari dira. Bitartean gure Erria maite dogunok alderdikeriakaitik, naiz antxiñako gorrotoakaitik, banaduta gagoz.

KARLOS IBAÑEZ







## MARTIRIAK

### GAUR EGUNEAN BEBAI

Orain amar urte dirala, San Salvador'en, Romero Jauna, Gotzai-buru zana, EUKARISTIA DEUNA OSPATZEN egoala bere gorputza zulotuta itxi eben eta bera KISTO'ren MARTIRI bat biurtuta. Eta on dana txiroen aide ziardualako, okerkeriak mezutu ta gizonzakarrak salatzen ebazalako.

Aurretik ilgo ebela zemaituta egoan, eta berak esan be bai: "Ilten ba'nabe Salvadortarren Errian berbiztuko naz".

Oraintsu, 1989'gko. Azillaren 16'an, sei Josu-laguni (Jesuitak) eta emakume biri basaki ilketa emon dau-tee. Ikusten dan lez Romero Jaunak ixuritako odol-aziak ekarri ona emon dau.

Oneixen eriotza ta beste eginkizun batzuen egilleak "Escuadrones de la muerte" deritxoenak dira ta gañera, sarritan, euren zakarkerien arrandia erakutsi-naia egin oi dabe.

Aurreko asteetan baso-gudariak eraso-aldi bat sortu eben eta estaduko gudarosteak, arei erantzunez, aurpegia emon eutsen. Eskuma-eskumaldeko "escuadroiak", gudarosteko batzuen kidetasunaz oneixen ondoan barriro agertu ziran eta onein ez ikusiaz sei Josu-lagun erail ebezan. Euretarikoen bost españa'ko laterritik joanda, baña Salvadortarren erritasuna eukela. Seirak Ameriketa erdirantzeko Katoliko Ikastetxe Nagusiko (Unibersitateko) irakasleak ziran.

Bizi izan diran erriaren aide bake-aldi adoretzu ta artu-emonen zentzutasuna zabaldu-eraziz arduratuta egon diran abade batzuen aurkako gaiztakeri bat izan da.

Lenengoko egunetan emondako argitasunak, eraila izan dan Ellakuria'tar Ignacio Josu-lagunaren ize-nera zuzendu dira. Olantxe egoki dala dirudi, Ikastetxe Nagusiaren Zuzendaria zalako, Romero Gotzai-buruaren oartzaille ta beragaz batera lan egiten ebalako, oldoskalari ta askatasun-teologilarien aldetik entzute andiko jakintsua zalako. Orrez gain beragan erriaren zauriak geldiazi ta kistotasun erazkoa izatez bat eginda, ba-kea lortzeko alegiñak sendotzen ziran.

"Frente Farabundo Marti" gaz alkarrizketak egin ebazan eta bardin Cristian Lendakariagaz. Bere eriotza baiño astebete aurretik, El Salvador'eko Lendakaritzaren ministruaren eskutitz bateri erantzunez auxe idatzi eutson: "gizonen eskubideak goratzeko lan egiteko

gertu egoala", baita "edozein zuzenbidezko alegiñak lagundu, ta alkarrizketa-tratuaren jarraibidea benetako eran izan leitekezan".

Onetzaz emondako argibide ugariak ikusita, bere anai batek esan dau: Aita Ellakuria, Josu-lagunak, itaunduko ebala bere adizkideen aide, zegaitik ez zan euretaz itz egiten, besteen aide, beste martirien aide. Ori izango litzake bere ardurea, beretzat dizdirak eta ospeak gorde ez dauan kistotasun gogaldi baten agertasuna.

Beste bost Josu-lagunak, beragaz batera, talde bikain bat Ikastetxe Nagusian osotzen eben eta danok arrazoi bardiñagaitik erail ebezan, au da: errialde anai-kor bat, zuzena ta demokrazizkoa egiteko laguntasuna emoten ebelako.

Len aita Rutilo Grande lez, bardin Gotzai-buru Romero jauna ta baita orain ille batzuk erail ebezan ipar-amerikar lekaimeak lez, aita Ellakuria ta bere lagunak be eriotz zigorraz zemaikatu ebezan, ta zemaiketa au betetu egin eben.

Ez arrazoi politikoakaitik, ez arrokeriagaitik biozbako eriotz-epai orreri aurka egin eutsolako, baña bai zintzotasunagaitik erri bateri emondakoitzagaitik baketzailleen bearrean bera egoalako ta baita gorengo aitormen lez euren bizitza berbera eskeiñi ebelako. Odol ixuritasun au BAKE azia izan daitela, egunokaz zeatz esan da.

Beste kistotar askori, euren artean Rivera y Damas Gotzai-buruari ta beste Gotzai batzuri be jakin-arazko dautsee euren bizitzen arriskua. Salvadortarren errian berbiztu dan Romero Gotzai-buruaren abotsa da, bizitza gura dauan abotsa da ta eriotzarik gura ez dauana, adizkidetasuna ta bizi-laguntza gura dauana ta ez gogorkeria.

Idatzitako guztia ECCLESIA adizkaritik an-emen artuta dago ta geiena bere idazburutik itzez-itz barriro idatzita. Ale ori, 1989'gko. Azillaren 25'garrenkoa da, 2.451'gko. zenbakia ta bere bostgarren orrialdean agertzen da.

Aldizkari berberaren beste toki baten, egun orretan, 1.989'gko. Azillaren 16'an, eraillak izan diranen zerrrenda dakar, guztiak Josu-lagunen abadeak eta onei-kek dira:

— IGNACIO ELLAKURIA BEASKOETXEA. Biz-

## EGO-AMERIKA

kaitar Portugaletetarra. 59 urtekoa. "J. Simeon Cañas" Ikastetxe Nagusiko Zuzendaria.

— JOAQUIN LOPEZ eta LOPEZ. Salvadortarra, 71 urtekoa. Taldearen Lagun-zarra zan, "Fè y Alegria"ren nazioko Zuzendaria; erakunde au (aita VELEZ, Josu-lagunak irasia) "kaletarrak elduten ez diran lekuetaraño" gizatasun eta jakintza erooten alegintzen da, au da uri-bazterretan eta baserriko inguruetan bizitzen diran ume ta gazteentzat.

— SEGUNDO MONTES POZO. Gastelar Valladolidarra, 56 urtekoa ta Alkargoaren Zuzendari ekintza ziarduana. Ameriketa Erdiko Ikastetxe Nagusian, Gizarte irakaslea ta Gizonen eskubideen Ikastegiaren Zuzendaria zan.

— IGNACIO MARTIN BARO. Au be Valladolidarra, 47 urtekoa. Sikologilaria ta Ameriketa Erdiko Ikastetxe Nagusiaren Nagusi-ordea zan. Sikologi irakaslea. Ameriketa Erdietan 27 urte eroiazala.

— AMANDO LOPEZ QUINTANA. Burgos'ko Cubo de la Burebatarra, 53 urtekoa. Ameriketa Erdiko Ikastetxe Nagusian Teologi irakaslea zan. 1965'garrean Nikaragua'n abade egin zan. Ameriketa Erdian 1953'garrenetik lanean ziarduan.

— JUAN RAMON MORENO PARDO. Napartar Villatuertarra, 56 urtekoa. "Monseñor Romero" ikastegiaren Zuzendari-ordea, Ameriketa Erdiko Ikastetxe Nagusian Teologi irakaslea. Ameriketa Erdian 1951'garrenetik lanean ziarduan.

Eta euren ondoan batera erail ebezan°

— ELBA JULIA RAMOS andrea, Josu-lagunen bizitegiaren sukalkiña.

Baita bere alaba,

— CELINA, 15 urte baño ez eukazala, ustekabez ikustaldi bat egiten aurkitzen zala.

Ba'leiteke emakume bi oneik erailtea autorgillerik ez eiten egon eta olan baztertu susmoa iñork ezagutu litzaketenik erail-iltzailleak.

Ikusten dan lez Eliza Deunaren ziñopak, euren eredu jarraibideekaitik, eginkizun eta esateagaitik, ez dira antziñeko notiñak bakarrik naiz ta sarri askotan iruditen jakuzela urrin-urriñeko denporetakoak lez. Baña emen daukaguz, gaur bertan be, beste sei Josu-lagun eta emakume zintzo bi martiri biurtuta.

Aldizkari berberan beste 13 abadeen izenak zeaztazten dira, guztiak lekaidi ezbarriñeko misiolariak azkeneko 17 urteetan eraillak izan diranak. Ori dala-ta, oraingoakaz eta emakume biak sartuta, urteroko martiri bat baño geiago emoten dau.

Negargarriena beste gauza bat da: erail dabezen guztiak, ludi onetako txiro-txiroen eta laguntza barik

dagozanan aide lan egin dabelako, batik bat euren eskubideak zaindutearren eta eurekaz egiten diran okerkerien aurka aurpegia emon dabelako dala.

Baña mingarriagoa oindiño jakitea erailtzalleak ez dirala izan erri narrazko ezjakin eta gizakundean oiñarri barik bizi diran gizonak, bestera baño, naiko kuturdun gizonen artekoak eta erdi-gorantzako gizarte maila tartekoak.

Eta ori, itxuraz, txiroak eta alboratutakoak euren apaltasun egoeratik urten daitezana, gura ez dabelako onelan nagusiak beti nagusi ta euren bizimoduari jarraituz "menpekoak" euki leikezalako, ludi onetako makalen eta beartsuen lan eta nekeari eskerrak.

Kisto'ri jazo jakonaren antzekoa da au Bera be erioztzera epaitua izan zan eta ori bere aldiko Lege-maixuak erabagita ta ez erri-narrazkoak batzutan zabaldu gura izan dan lez. Lege-maixu orrentzat be Kisto ostopo andi bat izan zan, beste gauzen artean esan ebalako ZORIONTSUAK dirala:

— negar egiten dabenak...

— zuzentasun gose ta egari diranak...

— bakezaleak...

— zuzentasunagaitik nekeak ikusten dabezanak.....

Bide oneri zintzotasunez jarraitzearren, batez be euren egintzen erakutsi onakaitik sei Josu-lagun abade oneik erail dabez oraintsu. Onegaitik euretaz esan leike:

ZORIONTSUAK eurak zintzotasunez eta zalantza barik jarraitu dautsoelako geure Maixu ta Jaun Kisto Josu'ri.

Josu-lagunen sei adizkide

Il dabez zuloz josita,

Eurekaz baita emakume bi

Dagoz lurrean jausita.

Euren pekatu andi-andia

Txiroen aide lanketa,

Kisto'ren bide zuzen-zuzena

Zintzotasunez artuta.

Ludi onetan gaiztakeria

Gogorkeriaz doala,

Baña bestetik lagun zintzoak

Aurpegia damotsela.

Beartsuenai laguntzearren

Txarrentzat pekatu dala,

Baña Jainkoak esango dautse

ZORIONTSUAK dirala.

EGILEOR ETA ARREGI

## GURE GIZALDIKO JAZOERAK

Zeru-zabaldian gizon bat dabil kulunkatzen. Eunkida onen asieran sinistu-eziñeko egitea da ori.

Boer-gudeagaz asten da gizaldia eta berrog i urte geroago milloika il ziran mundu guztiko guda bietan eta anai-arteko gudak zenbatu ezin leikezan beste jazo ziran.

Nazitarrak egindako batze-zelaietan eta Sobiet'tarren presondegietan menpeko jopuen lanaz milloika il ziran.

Milloika geiago oraindiño gosez, lur-ikaraz eta izadiko beste ezbearrez il diranak. Gosez eta gaisoz milloika umeak oraindiño ilten dira eta millo geiago dira gaisorik, polioagaz eta bizi-aziñik dagozenak.

Gizaldi au asi zanean millo millo norki ziran munduko gizatalde guztien artean, 1930'ean bi millo millo, 1960'an iru millo millo, 1975'ean lau millo millo eta 1987'an bost millo millo.

Gizonak illargian oiña jarri eben eta umeak leiar-odietan sortzen asi ziran. Irrati, filmas, urrutikuskin egazkin eta abar agertu dira eta bir-aldaketa aundia. Atomo-guneazko lerkaiak, kimi-gaiak eta txismits-gaiak ugari eskuratu doguz. Mendirik aundienetara gizonak igon dabe, baita itxasoko zulorik sakonetara sartu be, lurraren ipar-burua ontziz igaro dabe eta zeru zabaleko bideetara ontziak bialdu.

Lenin, Hitler, Stalin, Mao Churchill, Gandhi, De Gaulle, Einstein, Juan XXIII aita Santua.... etorri ta joan egin dira.

\* \* \*

Gizaldi onek Eleizea be aldatu egin dau. Eleiz-Batzar Nagusia egin zan eta Eleizan buru bederatzi Aita Santu izan dauz, bat 32 urtean eta beste bat 33 egunean, azkenengoak bizirik, dirauala. Oraingo Aita Santu au au zauritua izan zan su-izkilluz San Pedro'ren enparantzan bertan 1981'eko orrillaren 13'an.

Australia'tarra dan Nellie Melba'k lenengo irrati-jardun alkartua egin eban Ingalterra'ko irrati-tresnan 1920'ko babillaren 15'ean.

Mundu guztirako lenengo irrati-ekiñaldia Iparramerikan 1906'an egin zan.

John Logie Baird Eskozia'tarrak ikusirratian sabel-iztun bigaz (bentrilokuo bigaz) lenengo ekiñaldia egin eban, ordura-artean iñoz agertu bako irudiak agertuz, London'en, 1926'ko urtarrillaren 27'an.

1987'ko abenduaren 31'n urtea segundo bat laburtu zan, Egutegi Gregorio'tarragaz bateratzeko.

LETONA'k.

### OARRA

Irakurle:

Zer'eri dagokion urteko saria ordaindu ez ba'dozu, ordaindu egizu **ainbat** lasterren. Igazkoa (1989) 1.000 pezeta da, eta urte barrirakoa (1990) beste 1.000. Ordaintzeko naikoa dozu txeke bat "euskerazaleak alkartea"-ren izenean bialtzea edo zeure banku-kontuaren zenbakia emotea.

DIRUZAIÑAK

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.  
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.  
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.  
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

100 PEZETA